

kalbarioak • Mutriku

Goitibeherak, prest!

Herriko koadrila gehienek hartuko dute parte beste behin ere Kalbarioan egingo den jaitsieran

Alazne Artetxe | MUTRIKU

Kalbarioko jaietako ekitaldi garrantzitsuenetarikoa bat goitibeheren jaitsiera da. Bertan, herriko hainbat lagunek parte hartu ohi dute. Goitibehera gainean ez dagoena ikusle modura izaten da parte-hartzaileak animatzen. Goitibeheren jaitsiera 14:30ak aldera hasiko da Kalbarioan. Iraupena parte hartzen duten goitibeheren kopuruaren arabera izango da.

Urte asko daramatzate goitibeheren jaitsiera egiten. Gazteria eta Jaiak batzordeetako arduradun Ibon Lekubek adierazi digunez, «orain dela urte asko bizpahiru lagunei Kalbariotik goitibehera gainean jaitea bururatu zitzaion».

Ritxi eta Zumalabe izan ziren lehen aldiz goitibehera gainean jaitsi zirenak. Zerbait gertatuz gero, Jose Angel Maixaren Renault 12 autoa erabili zuen anbulantzia moduan. Eta bidea zabaltzen, beste lagun bat joan zen aurretik motorrean. Lekubek dioenez, eskertzekoa da goitibeheren jaitsiera sortu izana, eta «horien ausardia eta ekimenari esker egun Kalbarioko jaietako ekitaldi nagusietarikoa da».

Partaidetza handia

Goitibeheren jaitsiera Kalbarioan hasi eta Txurruka plazan bukatzen da. Bertan era askotako lagunek hartzen dute parte. Gutxi gorabehera 30 edo 40 goitibehera izan ohi dira. Hainbat motatako goitibeherak izaten dira: bi pertsonak osotzen dituztenetik, koadrila oso batek osatutakoetara.

Ibon Lekubek azaldu digunez, «Mutrikuko bi koadrilek bi pisuko goitibeherak egiten dituzte, hain zuzen ere, Katxal eta Potronor koadrilek. Lehen ba-

EGITARAUA

GAUR

08:00etatik aurrera: Mezak Kalbarioko ermitan.

10:00: Haur parkea ludotekarekin Egañaneko frontoian.

11:00: Meza nagusia Kalbarioko ermitan.

12:00: Bertsolariak, harri-jasotzaileak, aizkolariak... Kalbarioko ermita aurrean. Ondoren, erromeria Lajarekin.

14:30: Goitibeheren jaitsiera.

16:30: Haur parkea ludotekarekin Egañaneko frontoian.

19:00: Sokamuturra.

22:00: Euskarakea Zabil plazan.

23:00: Dantzaldia Sakatrix taldearekin Beheko Plazan.

IBON LEKUBE

Udal Gazteria eta Jaiak-eko arduraduna

«Eskertzekoa da goitibeheren jaitsiera sortu zutenek izandako ideia»

zen ohitura bat: Potronor koadrila azkena jaisten zen, eta goitibeheren jaitsierari bukaera ematen zion».

Mutrikuarrek lan ugari egiten dute aurreko egunetan goitibeherak prestatzen. Goitibehera



JOTXU

30-40 goitibehera inguruk hartzen dute parte urtero jaitsieran.

originalak izan ohi dira. Esate baterako, piraten itsasontziak, trenak (kea botatzen dutenak ere bai), auto txikiak (*Car*-ak) eta hainbat goitibehera ikusi izan dira. Koadrila bakoitzak bere izena, kolorea eta anagrama ere ipintzen dio ibilgailuari.

«Herriko ia koadrila guztiek hartzen dute parte. Gainera Txurruka plazara arte jendea

zain egoten da; jendea animatzen ikustea, hunkigarria izaten da», azaldu du batzordeburuak. Bestalde, AEK eta presoan aldeko goitibeherak urtero jaitsi ohi dira. Inoiz hiesaren aurkako kanpainaren barruan goitibeherak preserbatiboak banatzen jaitsi izan dira.

Bitxikeria moduan, Eibarko koadrila batek ere hartzen du

parte jaitsieran *La Portuguesa* goitibeherarekin, Portugaleko bandera eta guzti. Horiek dute umorea!

Beraz, goitibehera bitxiak eta koloretsuak ikusi nahi dituenak Mutrikura joan eta jai berezi horietan parte hartzea besterik ez du. Kontuan izan inguruko azken jaiak izango direla, eta, beraz, animatu!

Gizonezkoen
ileapaindegia

IMOTZ

Erdiko kale, 34 - behean ☎ 943 60 41 62 MUTRIKU



CONSERVAS DE PESCADO

Calogero G. Billante S.A.

Mijoa auzoa z/g
6. Pk.

20830 MUTRIKU (Gipuzkoa)

Tel.: 943 60 36 97

Faxa: 943 60 36 97

943 60 71 33

BERISTAIN

DENDA ○ ESTANKOA ○ LURRINDEGIA

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

☎ 943 60 35 44

M U T R I K U

Galdona KANPIN - ERRETEGIA

BEREZIAK

ZAPO ERREA ETA ARKUME ERREA

GALDONA AUZOA - MUTRIKU - 943 60 35 09